


2010-06-19

Ikastolaren Eguna



jakintzaikastola

jakintzaikastola

jakintza.net

ikastola@jakintza.net

Ordizia



Ordiziako txoko
ezberdinetan, goizeko
10:30etik aurrera

Aurten, Ikastolaren eguna ekainaren 19an ospatuko dugu. Beraz, ondoren, ekintza desberdinen programaren berri eman nahi dizuegu, eta parte hartzeko gonbidapena luzatu bai guraso, ikasle eta irakasleei.

Ekitaldi horien guztien amaieran, 12:30ean hain zuzen, hamaiketako goxoa izango dugu guztiontzat frontoian.

(Birziklairako jarriko diren zabor poltsak izendatuta egongo dira. Erabil itzazue mesedez)



“Zer jan, hura izan”

Euskara dastatu eta euskaldun izateaz gozatu!!!

Haur Hezkuntza eta LHko Lehen Ziklora zuzendutako ekintzak.

Goizeko **10:45ean**, **Villa Eugenia ikastolan** elkartuko gara guraso, ikasle eta irakasleak.

11:00etan, **Plaza nagusian**, **Korri Xalto eta Brinko pailazo**en emanaldia izango dugu ikusgai.

12:00etan LH2ko **Abesbatzaren emanaldia** izango dugu.

Bukaeran, tutore bakoitzak bere taldeko haurrei oparitxo bat eman ostean, guraso bakoitzak bere seme-alaba jaso beharko du.

Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Ziklora zuzendutako ekintzak.

10:30ean Barandiaran Plazan elkartuko gara 3. eta 4. mailakoak. Bertan, hainbat jolasetan parte hartuko dugu.

10:30ean Barrenako Plazan elkartuko gara 5. eta 6. mailakoak, eta **Altxorraren bila** ibiliko gara herrian zehar.

DBH eta Batxilergoko Zikloetara zuzendutako ekintzak.

Goizeko **10:30ean** guraso, ikasle eta irakasleen arteko **futbol partidua** frontoian.

Goizeko **11:30ean** frontoian, **Herri kirolak** izango ditugu.